

EBAZPENA, 2024ko azaroaren 13koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena, UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatearen eta Deustuko Unibertsitateko Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolaren akreditazio instituzionala berritzeko bisita panelaren kideak izendatzea xedatzen duena.

Ekainaren 28ko 13/2012 Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko Legearen 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio organo zientifiko-teknikoetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa- Hurrengo bisita panela izendatzea, UPV/EHUko Bilboko Hezkuntza Fakultatera eta Deustuko Unibertsitateko Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolara egin behar den bisita egiteko:

1. PANELA:

Presidente akademikoa eta kalitatea ziurtatzeko aditua: José Antonio Caride

Kide akademikoa: José Luís San Fabián Maroto

Ikasle kidea: Amaia Vertiz Conde

Kide akademikoa: María José Rodríguez Conde

Kide profesionala: Itziar Echeandía García

Idazkari Teknikoak: Idoia Collado Arrúe eta Isabel de la Puerta Herrera

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 13an.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Zuzendari

